

# Abarrak

MIKEL GARCIA

## Irribarre mutua

EZUSTEKOA EMAN DU AURTEN, sariz sari dabil eta dagoeneko eskalada geldiezina hasia du Oscarren bidean. Donostiako Zinemaldian ere, Publikoaren Saria irabazi zuen, gauza ederra lortu baitu *The Artist* filmak: kritikak goiraipatzea eta ikusleek maitatzea. 1927an dago kokatua, zinema mutuaren azkenetan, eta ahosdun zeluloidera egokitzen jakin ez duen aktorearen gainbehera du ardatz, sasoi batean izandako ospearean itzaletan. Pelikula arriskatua egin du Hazanaviciusek, zuri-beltzean errodatua eta mutua, baina ahotsa ez da faltan botatzen pelikulan eta ikusleak gozatu egiten du pertsonaien elkarrizketa, oihu eta xuxurla entzunezinez; keinuak eta begiradak gauza dira beren kabuz asko transmititzeko –bi aktore protagonisten lan onari esker, hein batean–.

Zinema mutuaren estiloa eta imintzioak berreskuratatu, era burutsuan birmoldatu, eta istorioa modu originalean kontatu du zuzendariak, umoretsu. Keinu konplizeak tartekatuz, erritmo biziz, musika, argazkia eta argi-ilun jokoak txukun gidatuz, zinema-industriaren barrunbeak arakatu ditu: makineria zinematogra-

*The Artist*. Zuzendari-gidoilaria: Michel Hazanavicius.  
Aktoreak: Jean Dujardin, Bérénice Bejo.  
2011, Frantzia. 100 min.



fikoaren baitako botere harremanak jarri ditu mahai gainean, arrakastaren izaera hauskorra, zinemak berak sortutako produktuak gailurrean jartzeko eta handik lokatzetara jausteko duen abilezia, duintasunaren eta urguiluaren arteko muga...

Hiru dimentsioen garaian, zinema egiteko bestelako moldeetan murgildu da Hazanavicius, txarlestonearen hamarkada irudikatzeko. Bitxia da nola, zinema mutuak jasan zuen gainbehera pantailaratzeko, pelikula mutua egin duen zuzendari frantziarrak, zinema eredu horrek ez duela zertan zaharkitua egon frogatzeko. Alderantziz, freskoa da *The Artist* en ekarpena, zuri-beltzean izan arren koloretsua, argia, xarma eta magia bereziarekin. Aretotik ateratzean irribarre zintzilik uzten dizun horietakoa.



**EGURREZKO TAULA**  
**50€**

**EGUTEGIA**  
**8,50€**

**BURNIZKO EUSKARRIA**  
**5€**

**argia**

**Salgai dagoeneko!**

**2012ko egutegia**

- Eduki historikoak
- Landareei buruzko bitxikeriak
- Txistek
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

**ESKAERAK**

☎ 943 37 15 45

denda@argia.com